

"PRINCIPE E VIANA"



SUPLEMENTO EN VASCUENCE
DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Coordinador para el Suplemento
en Euskara
MARCELINO GARDE

XVII'gn. urtea
159 zenbakia

Iruña - 1983 - Abendua

Fran. conc.
N.º clas. 34/60

Director en func. de la Inst.
Príncipe de Viana
J. JOSE GRAU

Urteak xin, bizia xoan...

Abendua. Urtearen azkeneko illa. Abendua-
ren 31'n ilko zaigu, nekez, oñazez, eta zauriz za-
matua, 1983'garren urtea.

Oiuka, eroak bezala karraxika, ardo-
edontziak gora jasoz, eta, -nork daki zergatik-,
maatsa janez, emango dio jendeak azken agurra,
eriotzako unean 1983'garren urte zar oni.

«Gau-Zar»'eko jai ori ez da jai euskalduna.
Gabona, Eguberri gaua, zen emen jai eguna kris-
tautasuna sartu zitzaigunez gero, eta lenagotik
ere.

Gabonetako Olentzaro, ez da gizakume kris-
taua. Jentilla da. Basoan bizi omen zen, ikazkin.
Olentzaro kristautasunaren apostolu, Kristo'ren
aintzindari, biurtu du euskal etnologi edo erri-
yakintzak:

**Olentzaro jetxi da menditik kalera,
Jesus jaio da eta berri-ematera.**

Sakon sartu zitzaigun euskaldunoi biotzean
Eguberri-jai. Abereek ere gau ortan janari bere-
zia izaten zuten Euskalerrria'n.

Etxe-barrean, orain ere, maitasun aundia-

goarekin ospatuko da Gabon gaua, Urtezar gaua
baño.

Kalean ez. Kalean, «Urtezar» egin da giroaren
jabe. Atzeritik etorri zaigun jai. Izango da gure
kaleetan gaur ortan majiña bat ixtillu, eta majiña
bat ordekeri.

Maats-jate ori, irratikuska edo telebisioak sar-
tu digu gure artera. Beste ainbat erbesteko oitura
sartzen dizkigun eta sartuko dizkigun bezala. Zer-
bait egiten ez ba'dugu, laster ezereztuko zaigu
gure erri-yakintza guzia.

Urte bat joan da; beste bat badator.

Ez diogu gorrotorik joandakoari, ezta bildu-
rrik ere datorrenari. Guk, emendik, Naparroa'ko
Izkuntza babesten, lantzen eta edertzen jarraitu-
ko dugu beti bezala. Aberastasun bat besterik ez
du Naparroa'k munduarentzat: Naparroa'ko Eus-
kara. Naparroa'k izan dezazkean beste gauza guz-
tiak, gaiñerako erriek ere badituzte. Euskararik
ez dute. Euskara, Europa'ko izkuntzarik zarrena,
eta munduan zarrenetakoa.

Euskara galtzen ba'du, Naparroak ez du izate-
ko bere bereztasunaren arrazoirik.



I. VILLANUEVA Argazkia. RIPODAS

EUROPA'KO AZOKA BATUA

Madrid'ko agintariak diotenez, 1986'garren urtean sartuko gera Europa'ko erakunde nagusi orretan.

Carlos Romero, Nekazaritzako Ardura-dunak adierazi duenez, erakunde ortan sartzeko, nekazaritza dugu arazo zailena; ta bere ustez, ongiena aterako lirakenak, lurralde auek ditugu: Canarias, Baleares, Mediterraneo'ko itsas bazterra ta Jaen. Erdipurdi gutxi irabaziz, aterako lirakenak auetxek: Cataluña, Gerona ezik, Andalu-

EUSKAL ERRIKO LEIOA

zia, Extremadura, Castilla ta Rioja. Ta ez galdu ta ez irabaziz geldituko lirakenak: Gerona, Leon ta Aragon. Azkenik, era bat galtzen geldituko litzakenak: Galicia, Kantauri itsas ertzea ta Nafarroa. Beraz argi

adierazi du, Euskalerrria osoa, Nafarroa barruan dela, galduan aterako garela.

Eskerrrikasko!, Madrid'ko Nekazaritzako Arduradun jauna, zure berri jakingarri oien-gatik.

DIPUTAZIOAREN ERABAKIAK



BIDETAKO SAILLA

SARAITZU. Saraitzu'ko bide-zabalean diren zubiak konpontzeko, batez ere Nabaskoitze ta Ezkarotze irien artean direnak, baita Gortza (Güesa) ta Bidankotze irien artekoak ere, 3.274.352 pezeta.

EZKAROTZE. Zalduzkaray, Larre, Tokonar, Larre'ko Lerdoy eta Udiarte'ko alor-irri, iri ontako auzokoen artean, berriz zortzi urtetarako, suertatzeko baimena.

EZIKETAREN SAILLA

ARAKIL-UGARTE. «Aralar» Elkarteari 50.000 pezeta, «XVI'gn. Artzai Txakur Txapelketa» antolatzeagatik.

GARAYOA. «Aezkoa» izeneko Kultura-Elkarteari 25.000 pezeta eratu zituzten Esku-langintzaren Erakusketa ta Txapelketagatik.

MENDITAKO SAILLA

ABAURREPEA. Lanzamuño'ko 3112 fago zugi, 633 metroko zura, saltzeko baimena, 1.331.500 pezetako trukean.

ARISTEGI-LARRAYOTZ. Kilometro bat eta erdiko itzalpidea egiteko, J. Alegria jaunari 186.000 peseta.

DONEZTEBE-ELGORRIAGA. Iru kilometroko itzalpidea egiteko, A. Otin jaunari 1.800.000 pezeta.

LUZAIDE. Leautxi-Saiza Harre'ko belar-soroak obetzeko, 4.825 metroko oyan-bide bat egiñen dute 2.523.600 pezetako gastuz.

Erriak apaintzeko Sariketa

Etxeak, elizak eta erriak apaintzeko XVIII'gn. Sariketa izen zen 1982'gnean. Sariak irabazi zituzten artean, iru milloi pezta banatu zituen «Príncipe de Viana Erakundeak». Tartean badira Ayuntamentuak, Parrokiak eta etxejabeak, apaintze-lanik egokienak egin dituztelako sarituak. Nafarroa'ko guztien artean, ona emen batzuk:

AMAYUR: Etxeberria Garaikoetxea Jesus

ARIZKUN: Urrutia Azpiroz Nazario

ARRIBE: Irigoien Ualde Ignazio

ARRIETA: Kastera Leier Domingo

AURITZ-BERRI: Santxez Beraz Fermina

ELBETEA: Amorena Barrenetxea Eujenio
ELIZONDO: Aranbel Ansolabehere Teodoro; Etxeberria Elizalde aizpak

ERRAZU: Markuerkiaga E.; Sagardia B.

ERRONKARI: Galetx Bakaikoa Teresa

ESPARTZA: Domeño Ugarte Serapia

EZKAROZ: Mantxo Karloena Eujenio

ETXALAR: Sansiñena Irisarri Antonio

ETXARREN: apaiz eta erretore den Otxotorena ta Estanga Juan Jauna

GASKUE: Orrio Iraizoz Doroteo

GARAYOA: Del Río Alastuey Antonio; Jamar Jauregi Felix; Lorea Zazon Andres; Marko Jamar Remijio

IRURITA: «Gernaburua» etxeoak

IZAL: Ayetxu Napal Klotilde

LANTZ: Mariñelarena Urtasun Pedro

ORBAIZETA: Zabalza Urrutia Luis

OROZ-BETELU: Eskabel Badostain Lorenzo; Iribarren Lekunberri Miguel; Lekunberri Ibañez Alizia; Montoya Zabaleta Emiliano


OTXAGABIA: Genbero Otxoa Gabriel; Mantxo Rekalde Julian; Sola Ekert Kallisto; Villanueva Paskualena Klaudio

SARTZE (Sarries): Jauregi Brako Urbano

SUNBILLA: Arretxea Bergara Antonio; Gonzalez Sanjurjo Mariano; Manterola Ibarra Luis; Taberna Petrirena Ines.

URDIAIN: Galarza Galarza Migel Andres; Goikoetxea Ollakindia Zelestino; Ostiza Goikoetxea Maria ta Felisa

NAPARROA ZAINDIAREN GAZTELUAN



Nafarroa'ko Agintariak, Xabier'en elkar-tu ziren, gure Zaindariaren egunean, meza santua entzunez.

Zirarda eliz-gidariak bere itzaldian adierazi zuen, zorionekoak garela naparrak, zeruan bitarteko paregabea, Xabier'ko

Zaindaria daukagulako, gure arazo astun eta larriak zuzendu al izateko. Baita ere azaldu zuen bere itzaldian Zirarda jaunak, Naparroak, uka-eziñeko sustrai euskaldunak ere badauzkala, ta ori ere kontuan artzekoa dela.

Egun artan bertan, mixio lurraldeetara dijoazenei gurutze ezartzea izan zen.

ARABA'KOA DA TREBIÑO

Araba'ko mugen barnean dago Trebiño lurraldea, Gasteiz'tik kilometro oso gutxitara. Garai batean konderri izandakoa da. Bear ba'da orregatik lotuko zuen konderen batek Burgos'ekin, Araba'tik etenda.

Ez da gaur goizeko arazoa: XV'gn mende edo eunkadan sartu zuten Trebiño Burgos'en menpera. Bertako bizilagunek ala eskatuta? Ziur egon, ezetz.

Azken-urte auetan bizi-bizi dabil borroka: trebiñotarak, beren buruak arabar jotzen dituztenez, bete-betean Araba'ri loturik egotea nai dute Ortarako berriz, Burgos'tik askatuta bizi nai. Baiña Burgos'tik ez diete uzten, ezta Madril'dik ere.

Eta okerrago dena, Burgos'ek Araba'ri beste bi aran eskatzen dizkio: «Valdegobia» ta «Valderejo». Auskalo noiztik diren Araba ta orain Burgos'ek kendu nai, berea ez duen Trebiño uzteko orde.

Zorrotz eta zentzuz erantzun du Araba'ko Aldundiak: «*Arrigarria da ta iño-lako arrazoirik gabea, Araba'ri eskaera ori egitea*». Alaxe da izan ere. Jauntxokeriaz beterik jokatzeta bai-da, zor duena emateko orde, geiago eskatzea.

Arrazoizkoa ta zuzentasunezkoa, bide bakarra da: Trebiño'ko bizilagunei askatasuna ta aukera osoa uztea, berariaiek erabaki dezaten beren etorkizuna. Orduan bertakoek aukeratuko dute, Burgos'ekin nai duten ala Araba'rekin naiago duten. Orixe da benetakoa demokrazia. Bestelako jokabideak, jauntxokeria besterik ez dira.

NAPARROA'KO LANDAREDIA

Era askotakoak dira Naparroa'ko lurretan daukagun landareak. Or sarten ditugu zugaitzak, loreak, belarrak e.a. Artu 10.000 kilometro laukitu, eta sail berdiñean Naparroa'n baiño landare-mota geiago aurkitzea, ez da erraza.

Mendi-aldean daukagu motarik geienak, Auñamendien inguruan bereziki; eta auek Europa aldeari dagozkionak dira. Ego-aldean, berriz, beste girokoak daukagu, Mediterraneo aldeari dagozkionak.

Alde bietakoen artean, bada, ezberdintasun oso aberatsa egiten dute. Landare-zaleentzat aberastasun aundiak daude Naparroa guzian barna. Penintsula osoko landarediaren bilduma edo laburpena, emen Naparroa'n daukagula esan bear.

Xabier Alemani'ko mugetan

Alsazia ospe aundiko lurralde ezaguna dugu, ta an izanak gera berriz, Ikusgarriak dira benetan, txoko artan arkitzen diren, etxe eder, jauregi aundiak, eliz dotoreak, enparantzak, ibiltokiak eta abar eta abar.

Naparrentzat oso pozgarria izan dugu, an inguruan arkitzen den Sallestat izeneko iri ederrean arkitzen den San Foy eliza; an ikusi al izan bait dugu, Xabier'ko Frantzisko Donearen oroigarriak; eliz artako pulpito edo sermoi-lekua, oso apaindurik, gure Xabier'ko Semearen irudiaz.

Bertan agertzen dira, itz egiteko toki berezi artan, zeruetan arkitzen den gure erritarren bizitzako gertaera auek: gizon eta emakumeengana sartutako deabruen ateratzeak; goi-mallako gizon ospetsu bat kristautasunera biurtzen; In-

dia'n kirstau-ereintza zabaltzen; bataioak egin eta egin eta aukera guzietan kristau sinismena erakusten; ta baita ere egin oi zuen bezala su-garrak itzaltzen; ta oroimen oiek naikoak ez ba'lira bezala.

Baita ere agertzen dira egurrean ongi landutako irudi bikain auek ere: kristau berri bat bizkarrean dararamala; ta beste irudien artean, be- ra, gure Xabier'ko erritarra, lurrera, bazterrera, gitarra, koroia ta diru poltsa botatzen dituela; adieraziz era ortan, mundukeria baztertu ta azpiratu bearrean arkitzen gerala, zeru-bideetan zuzen-zuzen jarraitu nai ba'dugu.

Aztu-eziña, Prantzi ta Alemani'ko mugetan ikusitako guzia; ta naiz gure lurraldeetatik urruti arkitu, an daude oroigarri berezi aiek, Xabier'ko gure Zaindariaren izenean ezarritakoak. **MIREN YOSUNE**

Landare-motak ikasteko, aukerako tokia da, beraz.

Juan Karlos Bascos Nafarroa'ko Ikastetxe Nagusiaren Irakaslea lan aundiak egiten ari da alor ontan. Onela, 2.000 landare-mota ta geiago aipatzen ditu, loreduen artean; beste 4.000 mota baiño geiago, onto, liken, goroldio, iratze edo garo ta abarren artean. Egia esan, Europa'ko lu-

rralde gutxitan aiña. Ingalterra'n, Suecia'n, Noruega'n e.a. asko urriago badira landare-motak.

Alor ontan burutu dituzten iker-lanak ez dira gutxi. Irakasle ori ez-ezik, orren jarraitzaile ta beste ikasle asko dira ikerketan diarduetenak.

ISRAEL'EK 6 GUDARIREN TRUKEAN, 4.700 PALESTINAR ASKATU DITU

Mundua arras arriturik utzi duen ekintza edo gertakizuna: Israel'ek, galdu zituen SEI GUDARI bereak etxeratzeko, berak loturik zeuzkan 4.700 atzeritar askatu ditu.

Libano'ko gudaldian artu zizkioten Israel'i sei gudari ta loturik zeuzkaten palestinarrek. Israel'ek, berriz, 4.700 palestinar zeuzkan baituta, gudaldi berean artuak.

Zertarako zituen, izan ere, Isarel'ek ainbeste ao, janaritzeko ta ainbeste gudari, berak kontuz zaintzeko? Askatu ta kito!

«Gurutze Gorria» izeneko erakundearen bidez eraman zituen 1.000 palestinar beintzat Argelia'ra. Gaiñerakoak ere beste norabait urrutira.

Edozein erataria ere, trukaketa arrigarria izan da. Etxeratu duen israeldar gudari bakoitzeko, 783 palestinar borrokari askatu ditu. Mundua mundu denez gerokoan, gertatu ote da orrelako trukaketa ez-berdiñik? Era guztietara jokaera arrigarriak agertzen ditu Israel'ek.



J. K. Bascos, Nafarroa'ko Unibersitatean Botanika'ko Irakaslea

EZ-BEAR AUNDIAK MADRID'EN



NAGORE

Laño piskat; argi bat itzalik; ezaugarri batzuk erorita; ez bear den bidea artzea, ta ixtripu negargarria... Bitartean adin orotako bizi ederrak alperrik galdurik...

Urtearen azken illabete ontan, ez bear beltzak gertatu dira Madrid'en.

Bi egazkin beintzat bere onetik atera-ta, 93 ta 183 eriotz sortuak ditugu; berri txarrak benetan.

Ta ori naikoa ez ba'litz bezala, «Sala de Fiestas» edo «Jai-Areto» batean, su artuta, beste 80 neska-mutilak eriotzarekin arkitu ziren bizia galduz.

Orra ba or, egun gutxi barru, 350 gizasemeek nola beren bizia galdu zuten.

Ez da arritzekoa, beraz, Madrid'ko Alkate den Tierno Galvan'ek, urte au bukatzeko gogoa azaltzea; ala ere, gertaera oiek kontuan artzekoak izaten dira, garaiz bear diren neurriak artuz, berriro gerta ez ditezen.

ERDERARENTZAT LAGUNTZA GEIAGO

Estaduko dirutzatik laguntza aundiagoa eskatu dute gaztelera izkuntzarentzat: Gaztelzaindia edo «Academia de la Lengua Española» delakoa-ren lendakari den Pedro Lain Entralgo ta Antonio Tovar jaunek eraginda, Senaduaeren bidez egin dute eskaera.

Bidezkoa da, noski, izkuntzak ongi zaintzea. Eta ori erri-dirutzatik egitea ere ongi dago, armentzat ematea baiño ohea bai-da. Opa diogu gaztelarari edo gure erderari, erri-dirutzatik Estaduak laguntza oparoa ematea.

Baiña... zer esan bear ote dugu euskaldunok? Erderak bear baldin ba'du laguntza geiago, zenbatez dirutza aundiago ez ote diote eman bear Euskerari, bizirik iraun dezan? «Monumentu» agurgarritzat aipatzen dute, baiña kutxaren batean sartuta gordetzea naiago dute, diruz lagunduta, piztutzea baiño.

Euskaldunok bederen benetan lagunduko ba'genio, iraungo luke. Eta gure laguntza, dirua baiño bearragoa da: dakingunok, alde guztietan itzegitea.

Nork erail nai izan zuen

Aitasantua?

Badakizu, Juan Pablo Aitasantua il nai izan zutela. Erroma'ko Plazan bertan gertatu zen. Nork erail nai izan zuen Aitasantua?

—Ori iñork ez daki. Izen trakets duen turkitar batek bota zion tiroa; baiña, bera bakarrik, berez, ibilli zen tiroketa ortan, edo aren atzetik besteren batzuek zeunden, iñork argitu ez duen gauza da.

—Bai. Ali Agka deritzan gazte batek eman zion tiroa. Juzgaduetan ez da argitu aren atzetik beste jenderik ba'zebillen; baiña, bai da munduan ori argi dakien bat.

—Aitasantuari bizia kentzeko, nor egon diteke ain amorratua? Zer bultzata egin lezake iñork orrelako gauza bat? «Ori ez da oraindik argitu», birresango didazu.

—Bai, ba. Bada ori argi dakien bat.

—Nork?

—Aitasantuak berak.

—Nork esanda?

—Ali Agka berak esan da.

Eguberri-tako egunetan tiro-eman ziona ikustatzera joan zen Aitasantua espexera. An, tirolariak barkapena eskatu zion, eta tiroketaren zeaztasun guztiak eman zizkion; eta onespena, bendizioa eskatu.

Aitasantuak, barkamena ta onespena emateaz, an entzun zuenetik iñori ez ziola deus esango, agindu zion.

Belauneko artu zuen turkitar gazteak Aitasantuaren onespena.


Espetxetik atera zenean Aitasantua inguratu zuten albistalariak zerbait jakin naiean.

—Aitasantua, zer esan du Ali Agka'k? Zergatik il nai zinduen? Norbaitek esan erailtzeko?

Mota oberenako maltzurkeri pixka batez begi ta ezpañetan, Aitasantuak erantzun zien:

—Ori bere eta nere sekretu bat da, eta izkutan geldituko da.

Lasai egon diteke Ali Agka, Aita Santua il nai izan zuen turkitar gaztea. Ez du, ez, Aitasantuak bere itzik urratuko.



Eguberri aurreko agunetan, Erroma'ko baitegira joan zen Aitasantua, giltzapean dagon Ali Agka turkitar gaztea ikustera. Gazte orrek zauritu zuen Aitasantua

Zartzaroa illun?

Zartzaroa inguratzen denean, alai egon bearrean, alako kezka edo bildurra sortzen da gizartean. Uste izaten da, zartzarohan sartuz gero, gaxoaldiak ugartzen direla, dirutza —ordean— gutxitzen, maitasunak dakarzkina ar-emanak auldu, eta buru-argitasuna ere galtzen dela. Orduan —uste dute— ohea, gizartea utziz, zar-etxe batean sartu, eta eriotza noiz etorri zai.

Oso bestalderuntz, zardadea —aurrerapenak eraginta— luzatzen zaigu. Bizia errexago ta leunago biurtzen ari da, ta zardadeko urte-mugara inguratzean, illuntasuna ta kezkek baztertu bear ditugu.

Egunero ikusten ditugu karriketan, batera ta bestera arin-arin eta pixkor-pixkor ainbeste ta ainbeste urtedun. Badira urte langintza utzi bear zutela; illero-illero, bizitzeko «pentsio» edo zar-saria jaso bear dutela. Or dago egia argiena: gure gizartean asko ta asko direla 70 ta 80 urte dituenak osasuntsu arkitzen direnak.

Ori egia izan arren, batzuek —inguruko giroak eta aurre-iritziak eraginta— uste dute, diren baiño makalagoak eta aulagoak direla; orregatik ez dira bear bezain lirain agertzen gizartean.

Ikus ditzagun aurre-iritzi edo oiñarrik gabeko uste batzuk:

Norbait 65 urte-mugara iritxiz gero, andik aurrera gain-bera joan bearra dago.

Uste ortan, ekintza batzuetarako gay eta sasoitsu izan arren, batzuek atzera egiten dute. Zardadean osasuna nolakoa izaten den jabetzeak asko lagunduko digu azken urteak bildurrik gabe igarotzeko. Oraingo gizartean, orain 70 urte dela baiño, iru aldiz geiago bizi dira 65 urte dituenak.

Zartzarohan sartu direnek ez dute aztu bear:

- Batzuetan burua arinduta agertzen dela.
- Gertakizun berriak errex aztutzen dituztela, naiz gertakizun zarrak gogoan gorde.
- Batzuk ikusten direla zorabioren mendean.
- Jan gogorik gabe.
- Pixa egiteko gogoa izan arren, egin eziñik egoten direla, prostata dela medio; beste alditan, pixa dariotela eusteko almenik gabe.

Egoera oyek zuzentzeko bidean gaude; beraz, zardadea gauza bat da eta aro ortan agertzen diren gaitzak beste gauza bat. Ori gogoan izan bear dugu ta, jabeturik egon, gaitz oyeta-koen bat sortuko ba'litz, gaitza menderatuta, zardadea osasuntsu igaro eziñik ez dago.

Zardadean sartuz gero, maitasunak dakarzkina egin-bearrak osoki betetzeko almena galtzen dela.

Ustela dugu uste au, egia ez delako. Zerupearan batek bizirik irauten duen artean, almen ori ez da galtzen. Naiz gazte-aroan bezalako gozamen bizi-bizirik nabaitu ez. Ala da gaixo-aldia ez ba'da, beintzat.

Biotzeko «infarto» batek jo ondoren ere, iru illabete igaroz gero, maitasunak eskatzen duena bete izan leike: kaltegarri izan gabe, onuragarri izaten da biotzeko gaitzarentzat.



«Diabetes», odoleko azukre geyegiak maitasun almena auldu egiten du; azukre neurriak zainduz gero, almen ori berriz pizkortzen da.

Ez dira buruko muñetako gaitzak, baiñan alkoola ta sendagay-moteltzalleak, egitazko etsayak maitasun ekintzetan sayatzeko.

Zardadeak buru-arintzea dakar.

Au ere ez da egia, memoria edo oroimena galtzea askotan gazteen artean ere sortzen bait da. Orrelako gaitzen bat sortzen denean, len bai len sayatu bear da sendagayak artuz, bere onera etortzeko. Ez gelditu deus ere egin gabe; badaude sendagayak zarrak ere beren onera ekartzeko.

Ez ditugu aztu bear zardadean sarritan sortzen diren egoera bereziak: entzumena ta ikusmena beren neurri egokian ez izatea, naikoa izaten da zarren jokabidea orobat aldatzeko; ta baita ere gogoan aurkitzekoak dira: jan-gogo galtzeak dakarzkina aulda-dea.



Zardadeak eritasuna dakar.


Ez; naikoa dugu jakitea, 65 urtetik gorakoan artean, %81 osasuntsu arkitzen direla, iñoren laguntzarik gabe beren egin-bear guziak betetzeko gauza direlarik, eta 17-45 urte dituenak baiño gaxo-aldi gutxiagotan erortzen direla. EUNETIK 5 bakarrik izaten dira etxetik atera eziñik egon oi direnak, eta %1 (bat bakarrik) oyatik atera eziñean.

Zarrak, zar-etxe batera joan bearrean daude.

Uste ustela dugu au ere: gaurko egunetan gaxoaldi geyenak, norberaren etxetik atera gabe zuzendu leizke. Jabetu gaitezen, beraz, zardadeak gaxo-etxea ez dakarrela berarekin; obeki etxean, bear diren sendagayak eta ekintzak egoki erabilliz gero; ongi erantzuten dute gaxoek, zarrak izan arren, sayatu egin bear alegiñak egiten.

Kaltegarriak dira emen aipatutako ainbeste uste ustelak; orobat baztertu bear ditugu. Ta egia auek gogoan gorderik, anitz lagunduko diegu zardadean sartu direnei, baita ere aien sendiei. Onela gizartean bizimodu goxoa-go dezaten, Jainkoak bereganatzen dituen artean.

MEDIKU ZAARRA



Langille baten emazte egokia

Eguberri edo Gabonak aurreko egu-netan artu zuen, Lech Walesa'ren emazte Danuta'k —poloniar langille tre-bearen emazteak— bere senarraren izenean artu ere, 1983'gn. urteko Nobel Pake-Sari aundia. Noruega'ko Legegintza-Biltzar edo Parlamentuak erabaki zuen Walesa'ri ematea. Urrezko domiña bat, Agiri bikain bat eta dirutan 30 milloi pezta: orra or Nobel Sariaren osagarriak.

Noruega'ko errege Olav berak eman zizkien Sariak, Danuta'ri ta bere semeari ere. Ondoren, Walesa'ren emazte Danuta'k irakurri zuen bere senarrak gertutu zion mintzaldia. Ospakizun au guztia, Oslo'ko Unibersidadean izan zen. Esker onezko itz auek irakurri zituen:

«Pake-sari au ez dut nik ni naizelako artzen, Polonia'ko seme bat naizenez baizik. Joan ziren urteetan norbaitek ala esan zuen: «Illik dago Polonia». Orain guztiek dakite, ordea, Polonia ez dela il, eta badakite ez dela ilko ere. Eskerrik onenak zuei guztioi, zuek emandako Nobel Saria ere lagungarri delako, Polonia il ez dedin».

Sotil eta apal, baiña kementsu irakurri zuen Danuta'k bere mintzaldia. Txalo ederrik jo zioten bai errege-sendiak, diputaduek eta gaiñerako entzule guztiek.

Baiña bitartean, komunista lurraldeetako agintari ta albistariei zegozkien aulkiak, utsik zeuden. Deituak izan ziren arren, ez ziren agertu...

Danuta ta bere seme zaarrena, amabi urteko Bodgan, Olav erregeak berak deitu zituen sarituen otordu nagusira. Eta antxe bazkaldu zuten jakintsu sarituekin batean.

Norbait aundizat daukate Walesa

Noruega'n. Eta guztiz arrigarri gertatu zaie Walesa'ren erabakia: Nobel Sariak emandako 30 milloi peztak nekazari atzeratuei laguntzeko eman badi-tu oso-osorik. Nekazariei erarik one-nean lagundu aal izateko, berriz, Polonia'ko Elizaren bidez jarriko ditu serbitzuan.

Egun artan agur eta zorion ugari artu zituen Polonia'n bertan Walesa'k. Albistariak galdezka joan zitzaizkionean, Danuta'k Oslo'n esango zituen itzak esan zizkien. Eta azkenean auxe esan zien:

«Auxe da gure bidea: gizakien ara-

zoak konpontzekoan, pakezko bideak eta ekintzak burutzea».

Albistariekin izketaratu ondoren, bere elizako apaizaren etxera joan zen, Henyk Jankowsky jaunarengana. Antxe entzun zituen irratis Oslo'ko ospakizuneko gora-beerak. Irratis entzun zituen Danuta'ri jo zizkioten txaloak ere. Eta apaizak onela galdetu zion:

«Urrutizkiñez itzezin ba'zeneza Danuta'rekin, zer esango zenioke?»

Ona emen erantzuna:

«Ederki ta zoragarriro irakurri duela. Oso egoki bete duela nere lekua. Eta betikoa: asko maite dutala».



Walesa'ren emazte Danuta'k eta bien seme Bogdan'ek, 1983'gn. urteko «Pakezko Nobel-Saria» dela-ta jaso dituzten ikur eta oroigarriak erakusten dizkiguzte

A.
C
A
M
P
I
O
N



«NABARRA
EN SU
VIDA
HISTORICA»

«Erritasuna bereizteko, zaintzeko ta elkartasunean lotzeko, bide asko dira; baiña, biderik garrantzikoena izkuntza denik, lenago ez dute uste izan. Berria da uste ziur ori.

Onela, XVIII'gn. mendearen azkenera arte, erri-izkuntza zaintzeko ardurarik ez dute izan Gobernuak, ezta ondatzeko ere.

Ain zuzen, XIX'gn. mendean asi zen jendea erritasunaren ikur eta ezaugarritzat izkuntza artzen.

Lenago, oarkabean irauten zuten izkuntzek agozagoz eta gizaldiz-gizaldi; eta kondairako gora-berak ziren irau-arazten dietenak eta, bestetan, galten zituztenak. Onela izan da Euskararen kondaira ere: irauteko ta galtzeko, beste izkuntzek izan dituzten arazo ta legeen artean irau bait du.

Eta beste eragozpenen artean auek izan ditu: errita-

sun-kezka ta ardura galtzea... izkuntza arrotza erabiltzearen erreztasun engañagarria... itzez eta idatziz azaldu bearreko guztiak, Agintaritzak izkuntza arrotzean erabiltzea...

Nafarroa'ko Korteak eta beste Euskal Errien Batzar Nagusiek erdera zabaltzeko ardura izan zuten, baiña euskara zaintzeko ardurarik sekulan ez.

Onela ikusten zaitut nik errautsetara eroria, Euskara maitea, gure enda edo erriaren izkuntza ori, benetako Errauskiñe zoragarri ori. Eta nere asierako deadar bera egin nai dut orain, Shakespeare aundiaren su ta garrez beterik:

«O, euskalduna! Indio basati bezalakoa zara zu, bere erri osoa baiña baliotsuago den arri-bitxi bikaiña, arrika botatzen bait du beregandik urruti».



OMENALDIA



Euskerazaintza'k eratu ta Kulturaren Konseilaritza, Gipuzkoa'ko Foru-Aldundia ta Oyartzun'go Udalaren babesa ta laguntzarekin

Yon Oñatibia

Oso ezaguna zen Euskalerrri guzian Oyartzun'go semea izan zen Oñatibia jauna. Ikasketaz lege-gizona zen, bañan bereziki, erri-ekintzak izan ziren bere eginkizun berezienak. Oyartzun'en jaioa 1911'ko Azaroa'ren 24'ean, Donostia'n il ez-bear baten ondoren 1979'ko Ekaina'ren 24'ean.

Eresgille, dantza-berri sortzalle ta txistu jotzalle yayua zen benetan. Amaika lan bikain utzia da Euskalerrria'ren onerako, zeruko bidea artu aurretik; or dauzkagu agerkai ugari ori adierazten digutenak.

Lan ugari guzian gaindik, lan aberasgarriena, gure izkuntza Euskeraren alorrean egindakoa izan zen; ortarako, izkuntza ikasteko bide berriak eratu.

Euskera ikasteko bide egoki ta onena, erderaz «**método directo**» izenarekin ezagutzen dena omen da, diote izkuntzalari ospetsuenak; au da, bide «zuzen-zuzena», ta jokabide ori asmatu zuen, gure izkuntza errexago ikasteko. Bide ortatik, Euskera ikasi nai dutenak, lenengo egunetik, sayo guziak Euskera utsean egiten dituzte; aur txikiak, amaren altzoan izkuntza ikasten duten bezalaxe.

Gaurko egunetan, asko ta asko ikusten ditugu Euskera ikasi naiean; bañan oietatik, zenbat irixten dira Euskera ongi jakitera? Or ikusten dira bide erdian zapuzturik, izkuntza au ikastea gauza oso zalla dela esanez. Ta ori, zergatik? Gure izkuntza ikasteko bide egoki ta jatorrik erabiltzen ez direlako. Oztupo aundi ori gaindu zuen Oñatibia'tar Yon'ek, amaren altzoan bezala, Euskera erakusteko bide egoki-egokiak antolatuz.

Nafarroa'n ere izan dugu Yon Oñatibia'ren laguntza. Lenago, berez etorri zen bere **Euskeraren Ikaspide zuzen-zuzena** erakutsiz; geroago, Diputazioaren Eziketa-Zuzendaritzak deitua, urte batzuetan zear Euskararen uda-ikastaroak antolatzeko ta zuzentzeko.

Orrelako gizonak goraltzen dituzte erri guziek, Oñatibia jauna gorraldu egin berria izan den bezala. Lenengo bere Oyartzun jaioterrian izan zen omendua, jai bereziak antolatu, ta kale eder bateri bere izena ezarriz.

Paris'ko Sorbona Ikastetxe Nagusiak ere omendu du gure gizon langille purrukakua, bertako «Doktoradutza» goi-maillako neurrikoa, **il ondoren!**, eskeiniñ. Benetako saria, gizon jakintsuentzat.

Eta «EUSKERAZAINTZA»-Erri Akademia'k ere, agertu dio bere esker ona; ain xuxen, bera ere «Euskerazaintza Erakundea»-ren sortzallea izana bait zen.

Aste beteko ospakizunak eratuak ditugu oyartzuarrek. bertako seme ospetsua izan zenaren omenez.

Lenengo egunean, astelenez eta Donosti'n, Oñatibia'k il aurretik gertaturik zeukan «**NEKE TA POZ**» izeneko liburuaren azaltzea. Pelay Orozko'tar Mikel, izlaria.

Asteartean, Yon'ek Euskera irakasteko era bereziaren azaltzea izan zen Donosti'n.

Asteazkenean «Euskadi Irratiak» zabaldu zuen Yon'ek eratu zeukan «**GAXEN**» izeneko antzerkia. Oyartzun'go «Lartaun» taldearen gain joan zen eginkizun ori.

Ostegunean, Yon zenak, abestaldeentzako eraturako abesti-xortak zabaldu zituzten irrati guztiek. Abesti xorta ori, diska edo kurpil berezi ta aundi batean jasoak daude.

Ostiralean, Oyartzun'go pelota-leku itxi bikañean, Yon berak eraturako, «**Euskal Oyartzunak**» izeneko dantza ta abesti jaialdia.

Larunbatean, Oyartzun'go elizan, abes-batza talde batzuen ekinaldia, Yon'ek berak eraturako abesti-errikoyak abestuz.

Igandean, Erri-Meza; au ere Yon'ek eraturako meza-abestia oñarri artuz. Meza garayan, Koxme ta Mitxelena bertsolariek ere bota zituzten egunari zegozkion bertso egokiak.

Meza ondoren, Euskerazaintzak babestutako itzaldiak. Alkate jauna mintzatu zen. Yon zenaren adixkidea bait zen. Sorbona'ko Potier Irakaslearen agurra irakurri zuen Latiegi'tar Bixente'k. Endaya'ko Mitxelena'tar Imanol apaiza ere mintzatu zen ta baita ere Lekuona'tar D. Manuel, Azkenik. Gaztañaga'tar D. Jesus. apaiza ta Euskerazaintza'ko idazkari jaunak borobildu zuen ederki, berak egiten dakin bezala. Len aipaturako bi bertsolariek ere, egin zuten beren azken sayoa.

Ta jaialdi guziei bukaera emateko, anai arteko bazkaria ere izan zen; ta bazkalondoan, «**Basarri**»-ren itzaldi sakon bat entzuteko zoramena euki gendun. «**Basarri**» jauna, bertsolaritzako lanetan benetan yayua izan eta gaur ere baldin ba'da, itzlari bezala ere ez da makala, gure bertsolari onena izandako goi mallako plaza gizon aundia.

SABIÑ'ek



Oyartzun'go karrikan, Oñatibia'ri Omenaldian mai-buruak izanak diren Agintariak: Lekuona, Etxenike, Aizarna ta erriko Alkate Jaunak

Oñatibia'tar Yon zenak (G.B.), ainbeste ta ainbeste lan egindakoak, baita ere utzi zigun liburu bitxi au: «EGUBERRI ABESTIAK», ta bertatik aukeratu ditugu, Yon zenak sortutako abesti xamurrak, abesti errikoiak, eta baita ere mundu zabalean zear zabaldurik arkitzen diren Gabon-abesti ederrak. Era ortan, Yon zena gogoratu ta omentzekin batera, Jesus Aurtxo Belen'era etortzea gaurkotzen dugu.



Andante

A - tor, a - tor, mu - til, e - txe - ra, gaz - ta - ña xi - me - lak
ya - te - ra, ga - bon ga - - - ba os - pa - tu - te - - - ko
ai - ta - ren ta - ma - ren on - do - an; i - ku - si - ko dok ai - ta ba - rrez - ka,
Allegro
a - ma be poz a - tse - gi - ñez. E - ra - gi - ok, mu - til, au - rre - ko dan - bo -
liñ o - rri, gaz - ta - ñak e - rre ar - ti - an, gaz - ta - ñak e - rre ar - ti - an,
rit. *Lento*
txi - pli, txa - pla, pun! Ga - bon ga - ba po - zik i - ga - ro dai - gun.

Allegro

O - len - tze - ro bu - ru aun - di - ya en - ten - di - men - tuz jan - tzi - va.
bart a - rra - tsi - an e - ran o - men du a - mar a - rru - ko za - gi - ya.
Ai, ur - de tri - paun - di - ya, tran - la - ra - la - la, tran - la - ra - la - la.
Ai ur - de tri - paun - di - ya, tran - la - ra - la - la, tran - la - ra - la - ra.

Moderato

Eresia: Eliz-abesti zarra

1. A - toz - te, kris - tau - ak, bi - o - tzak poz - tu - rik, a -
toz - te guz - ti - ak Bet - le - n'e - ra, ja - yo dan gu - re
Je - sus i - kus - te - - - ra, Jau - na gur - tu de - za - gun, Jau -
na gur - tu de - za - gun, Jau - na gur - tu de - za - gun aus - pez - tu - rik.

ATOR, ATOR, MUTIL ETXERA

Gabon jaiak inguratzekin batera, euskaldun guziak, nun nai arkitzen direla, senideen deia nabaitzen dute beren baitan, eta egarri ori asetzeraz, beren jaiotexera itzultzen dira, nundik eta nolana, egun maitagarri oiek, aitarren ta amaren onduan ospatzera.

OLENTZERO



Urrutiko mendietan ikazkiña, bañan Jesus-Aurra jaiotzen berria zela jakin bezain laster, bereala erriratu zen, ordurarte ez-ezaguna zen berria danei adieraztera. Egia ote, orrelako berri onaren berri-emallea «Olentzero» izan zela? Nola nai ere, polita ta pozgarria gertakizuna.

ATOZTE, KRISTAUAK

Gogotsu erantzunez berri-emallearen deadarrari, euskaldunak ordutik, zintzo-zintzo jarraitzen diote, gizaldiz-gizaldi, gertaera arren esan naiari. Etor-kizunean ere, ala jarraituko al dugu, Euskalerrian'ren onerako.

BELEN'EN SORTU ZAIGU

Jesus-Aurtxo jaio berriaren aurrean, badakigu euskaldunak bear bezala erantzuten; otzez ta dardaraz daudenen aurrean; bear gorriren aurrean, benetako laguntza eskeñiz, goimaitasunak eraginda; egitazko giro bero berezi bat sortu araziz; ortxen bait dago kristautasunaren muña: «Beartsu oietako bateri egiten diezuten, neri egiten didazute».

OI, BETLEEN!

Naiz Belen izan erri txiki ta apala, erriak Belen'eri abesten diote, antxen sortu bait zen egitazko argia, mundu zabaleko gizon guziak nundik nora jo bear duten erakusten duen goi-argia.

GABON GABA

Alboan dijoan abesti zoragarri orrek dion bezala, zeru-argi ortan murgiltzen diren guziengan sortzen da benetako pake santua; orrengatik ain xuxen, mundu zabalean zear zabaldu da abesti eder au.



URTE ZAR

Gabon egunetako egun pozgarri ta alaitsuak igaro ondoren, euskaldunek badakigu erri-giroaz jai bikañak antolatzen, irri ta dantzekin borobilduz; galdetu bestela, garai batean napanerri izan ziren Lezo, Errenderi ta Oyar-tzun'go erritarrei.



Lento assai

Be - le - n'en sor - tu zai - gu Yin - ko - a - a -
 rra tse ko ga bet - di - an, o - tzez dar - da - raz da - go gai - xo -
 a las to pix - ka - ren gui - ne - an; be - ro a - ha - lez
 be - to die za gun a - pa e - ma - nez mu - su - an.

Andante

Oi, Be - thle - em! E - to - rri da zu - re ga -
 rai - a, Oi, Be - thle - em! On - gi bai - tu diz - ti - ra -
 tzen zu - ga - nik hel - du den ar - gi - ak be - te - tzen
 tu baz - ter gu - zi - ak, Oi, Be - thle - em! Oi, Be - thle - em!

Eresia: F. GRUBER'ek
 Itzak: OÑATIBIA'tar YON'ek

Andante

Ga - bon ga - ba, gaur - ko ga - ba; Aur - txo bat ja - yo da.
 Ain - tza ta go - ra - ka ze - ru - ta - rrak, po - zik es - kein - ka da - toz ar - tza - yak.
 Pa - ke - a lu - rre - ko da - nai, Jain - ko ber - be - ra bai - ta.

Andante

"Di - os - te - sal - be" on - gi e - to - rri, ga - bon Jain - ku -
 ak di - ye - la, le - gi - a - re - kin kun - pli de - za - gun
 Ur - te be - rri' ren bez - pe - ra. SOLO 1. Le - zo ta E -
 rren - te - ri - ya, i - ru - ga - rre - na O - yar - tzun, ne - re la - gu -
 nak, "Di - os - te - sal - be" gar - bu - a - re - kin e - ran - tzun. DC.

Andantino

Eresia ta itzak: OÑATIBIA'tar YON'ek

I - kas - to - la - tik, gu - kan - ta kan - ta - ri

Aur - txo Je - sus ja - yo be - rri - a - ri. 1. Pa - ke - a da - non - tzat

es - kein - tzen di - gu, pa - ke - a gaur a - nai - ta - su - ne - an.

ba ña gi - zon mal - tzu - rrak da - bilz - ki - gu pa - ke o - ri u - xa -

tu na - ye - an. A - la - re, ja - rrai Je - sus laz - ta - nai.

go - go o - ne - ko kris - tau da - nak. Bai!

Andante

E - rre - gi - ak da - toz pre - saz Be - le - na, guk bi - lla de -

za - gun al dan le - ne - na. 1. A - te txo - ku - an o - llar bi, ba - tak bes -

ti - a di - ru - ri, e - txe on - ta - ko e - txe - ko an - dri - ak A - ma Bir -

ji - ña di - ru - ri. A - ma Bir - ji - ña, A - ma Bir - ji -

ña, zu ze - ra ze - ru - ko E - rre - gi - ña

IKASTOLATIK

Gure aurrekoen erakutsi ta bideetatik jarrai dezaten, Oñatibia jaunak, argi ta garbi adierazten digu abesti orren bidez, Ikastoletako kimu berriak ere, bide egoki ta bide bakar ortatik jotzen jarraitu bear dutela, Euskalerrri'an zoriona arkitu nai ba'dugu.

Berri txar baten oiñeztarriak jo du euskal lurraldea, ta ekaitzaren eraso beltzak eratxi du gure etxea.

Zaude geldirik zure lurrean! Ez zaita jaiki ortikan! Euskal izkuntza zure premi da ta ez degu besterikan.

YON, lagun zintzo, zu gabe mutu gelditu zaigu basoa. Jolas ta kanta zuk erakusten zeningun euskal mintzoa...

Ta orain zure illetak mutu utzi gaituzte malkotan... Jaun maitea, Nork piztu dezaken zure EUSKERA eskoletan?

N. ETXANIZ

«Haize Garbia»'tik artuta


ERREGGEAK DATOZ



Aundi ta txiki, beartsu ta agintariak, denontzako etorri zelako berri-ona, denak agurtzen dute zerutik jexitako Jesus Aurtxoari; orrengatik, Erregeak ere iritxi ziren Belen'era, alguztidunaren aurrean burua makurtuz, oititz egitera. Euskalerrri'ko oiturai jarraituz, gazte taldeak etxez-etxe abesten joaten diranean, bertako etxeoandreak arrera ona egiten duten bezala, Belen'en guziei ere an zegoen Ama Birjiña arrera ona egiten bertara zijoazen.

POZETA PAKEA

Oñatibia'tar Yon'en abesti xamur auek adierazten diguten bezala gaur ere, egitazko zoriona, zerutar argi ortatik datorkigu, eta ez beste iñungo argi ta bideetatik.



«NEKE TA POZ» izeneko liburu au, Yon zenak gertaturik zeukan argitaratzeko, ez bear batek eraman aurretik.

Jakingarriz betetako idazti aberats onekin azaltzen dizkigu mundu zail ontan berak eraman bear izan zituen ainbeste ta ainbeste neke; negar-erri ontan, ez bait dira arkitzen arantzik gabeko larrosarik.

Baita ere idazti onek adierazten digu, Yon zena arretaz jabetzen zela bere inguruan gertatzen ziren gora-bera guzietaz; era berean jabetu bear dugu guk ere berataz, Yon zena sarritan gogoratu gure artean, ez bait dira egunero sortzen, giza-malla ortako gizakumerik.



Se autoriza la copia para la investigación.
© GOBIERNO DE NAVARRA

GAUZA BITXIAK



BURURIK ARRIGARRIENA

Aldameneko bizkaitar jaun onek ere bear zuen bere lekua orritxo ontan. Ta sari berezia, noski, burua ere ain bitxi ta berezi baten jabea delako. Ori da gizonaren burua!

Euzkadi'ko bururik arrigarrienari zegokion txapela aundia ta 7.000 pezta eman zizkioten. Zuretzat, jauna!

Urte askuan txapela kaskuan!



ZEZENAK ADAR, GIZONAK BIGOTE...

«Antero txaparrotea,
Kaisar'en bigotea...»

Onela dio euskal abesti zar batek. Antero eibartar arlote bat omen zen. Bere bigotearekin, arro-arro agertzen zen, Alemani'ko Kaisar ba'litz bezala.

Ekartzen dugun Ipar-Amerikatarrak zazpi urte bear izan omen ditu bere bigotea iristeko.

EZ DA BABEL-DORREA, GOZOPILLA DA

Argazkian, 35 maillako dorre bat, baiña ez da Babel dorrea. Txantxetan ere, 2.857 arraultzaz egindako gozopilla edo Ezkon-tarta da. Eguzkipean egin duten aundiena.

Baiña, ezetz asmatu nor den egillea? Gauza bitxi auetan, urrutietako jendeak agertu izan dira, geienetan. Oraingoan, ordea, mutillaren izenburua ez da arrotza: Olaizola'tar Mauriz, euskalduna, Kanada'ko Kebek irian dagona.

Obe genuke Olaizola ori emen, Euskalerrri'an ba'lebil Eguberri auetan puskaka banatzen euskaldunon artean...



TXINGURRI EGIN ZEN PRINTZEA

Abendu'ko illa. Neguaren asiera. Eguberri-aroa. Euskalerrri'ko jenderik geiena kristaua da-ta, Jesus'en jaiotza ospatzen da Eguberri gure errietan.

Abendu'ko illaren ogeitalauean,

**Jesus gure Jabea jaio da gauean,
gu ipintzeagatik bizitza obean...**

abestu oi da jaia auetan gure erri askotan. Umeak abesten dute bereziki abesti ori, etxez-etxe zerbait eskatuz.

Umeentzako kontatu nai dut nik ere gaur ipuitxo au, umeen jaia bait da batez ere Eguberri-jaia.



Aspaldi batean, bai omen zen errege aundi bat. Jau-regi ederrean bizi zen erregea. Jakintsua buruz; eta biotzez ona, oso ona zen errege ura. Bazuen seme bat ere. Oso-osoan aitaren itxurakoa. Jakintsu eta anitz ona. Aita bezain ona eta jakintsua.

Izadiko izaki guztiak zituen maite Erregeak, baita txikiak eta koxkorrenak ere. Maite zituen sagarraren barrungo arrak. Maite zituen belar-artean jaiotzen diren moxorroak ere.

Ta aita bezala maite zituen semeak munduko pizti ta pixtitxo guztiak.

–Aita, –esan zion bein batean Erregeari bere semeak–, Aita, gure lorategiko txingurriek izugarritzko bizitza negargarria daramate. Ez dute elkar maite. Ez diote elkarri eraspenik. Eta maitasunik eta elkarrenganako eraspenik ez dagoen lekuan, negarra, ta oñazea, ta eriotza, eta ondarena besterik ez dago.

–Ta zer egin dezakegu, seme, txingurri oiek bizitza obean ipintzeko?

–Ni joango naiz txingurritegira, Aita. Txingurri eginda joango naiz. Orrela ikusiko dute zenbaiteraño maite ditugun. Errege-semea txingurri bihurturik ikustea naiko izanango dute nere erakutsiak pozez artzeko.

Ta txingurri egin zen Erregearen semea.

Txingurritegian ez zen iñor oartu gau batean Errege-semea txingurri egin zenik. Ezer gertatu ez ba'litz bezala jarraitu zuten beren bizimodu gaiztoan.

Gero, iru urtez egon zen txingurri egindako Errege-semea txingurri aiek «*bizitza obean ipintzeko*» mintza ta mintza. Lelo bera izaten zuten beti aren erakusketa guztiek:

«Elkar maita ezazute». «Izan eiozute elkarri zor zaion eraspina». «Lagundu egiozute batak besteari». «Txingurritegian, lapurretaren bidez, aberatsek pillotzen ari zeraten «*aberastasun*» oiek, zikinkeriak besterik ez dira». «Zorionekoak zikinkeria oietan beren biotza jartzen ez dutenak». «Zorionekoak lagun urkoa maitatzeko zikinkeria orotik biotza garbi gordetzen dutenak».

–Txingurri au erotuta zegok, esan zuten azkenean txingurritegiko aberats eta aundiki guztiek.

–«Ala da. Erotuta dago», oi egin zuten aberatsen eta aundikien atzetik txingurri arruntek ere. «Errege baten semea dela esaten du; erotuta dago». «Egiten ditun mirariak, aztikeriz egiten ditu. Erotuta dago».

Txingurri biur aiek, landare baten arabaztean josita il zuten «txingurriak bizitza obean ipintzeagatik» txingurri egin zen Errege-semea.

–«Aita, –izan ziren bere azken-itzak, Aita, ez eiezu pekatu au kontuan artu.

DON BIXENTE

Peru Txiki'ren ateraldiak

–Txomin, gaur arpegi ona daukazu.

–Bai, Peru; pozik nago, lana billatu det eta.

–Eta zer lan egiten dezu?

–Lan guztia, burutik.



–Zer, ofiziña batean?

–Ez; illa moztutzen. (Peluquero). Bai ta muebleak saltzen ibiltzen naiz ere.

–Eta negozio ona al da mueble-saltzea?

–Bai, oso ona; ez zait gelditu ezta mueble bat bakarrik nere etxean.

–Aizu, Txomin. Zuk uzten dezu ollar bat; uste al dezu naiko izango dala amar ollorentzat?

–Bai, amar ollorentzat, bai; baña, ez ni bezelakoentzat.

–Zuk fama dezu asko jaten dezula. Zenbat ollar jango zenituzke?

–Amar edo amabi, lasi-lasai.

–Ta ollo ta uso, zenbat?

–Oyetakorik, ogei edo berrogei ere.

–Txomin; eta txori txiki oyek: kardin-txulo, txolarre etab., zenbat jango zenituzke?

–Danak!

–Txomin! Zuk lengoan mozkorra galanta zendula esan didate, eta autobusan andre bateri exer-lekua utzi zenola.

–Eta orregatik uste dezu mozkorra nengoela? Nik ez det ardorik edaten...

–Bai, bai; andre ura eta zu bakarrik zoazen autobusan.

–Neri ere atzo, tabernan lagunakin «musean» jokutzen, denbora pasa, eta gero Josepa'k nere emazteak:

–Au al da ordua etxera etortzeko?

–Amarrak bakarrik dira, esan nion nik.

–Nola amarrak? Ez al dezu aditu orain erlojuan ordu bata?

–Bai, ordu BAT eta gero ZERO, zenbat dira AMAR baizik?

Bein batean esan bear nion gure Josepari:

–Jaungoikoak egin zun lenbizi gizona, onek agindutzeko...

–Bai zera!, eranzun zidan Josepa'k; asian egiten dana, zirriborro edo borradorea da.



• ERRIZ - ERRI •

Baztan

BAZTAN'GO MUGAK (I)

Oraingoan, Baztan'go mugak behar nituzke aipatu, gure lurraldearen inguru eta zer Herrialdekin mugatzen duen.

Herrien izen zerrenda ager dezadan: Sara, Senpere, Ainhua, Ezpeleta, Itxaso, Bidarra, Baigorri, Banka, Aldude, Urepel. Hamar herri hauek Lapurdi eta Baxenabarra'koak. Gero, Urepel'eko marra hortatik inguruz inguru ditugu: Erro, Esteribar, Anue, Lantz, Urtzama, Donamaria, Bertiz-arana, Bertiz'ko Oihana, Etxalar, Urdazubi eta Zugarramurdi.

Haundiak dira Baztan'go dermioak, 374 km. luze-zabal eta mugaz-muga 115 kilometroko ingurunea. Euskalerrri'ko munizipio edo Udalerri haundiena hain segur.

Lapurdi eta Baxenabarra'kin ditugun mugariak, 56'tik 140'raño:

Atxuria edo Peña Plata (740 m.) hasita, Sara ukitzen dugu. Marra yarrakiz, Senpere'kin mugak; gero, Ainhua'kin Urdazubi'k dituen bi mugari: 71-72'gna., eta urrengoak -73-74-75- Ainhua'k Baztan'ekin. Ezpeleta herriarekin dugu mugari bakarra: 76; Gorospil'go lepoan aurkitzen da mugari hori eta hor berean bada harri luze eta haundi bat etzanta. Harri luze hori «menhir» edo zutarria izan behar du, denbora batez zutik zagona.

Aintzinat segituz, Itxaso'ko lurrekin mugatzen dugu; alderdi huntan, mendiak haundiago. Aintzinean, Bidarra dugu «barride»; zati hau dena erroitzen da mendi zakarra. «Urbakura» zokoan batutzen dira Aritzakun eta Urritzate errekek, eta hortik datorkio izan hori. Bi errekek bildurik, ur guzia Bidarra'ko lurretan sartzen da. Bi erreen erdian kokaturik, «Gorramendi» mendi luze eta haundia (1.090 m.).

Orain, 85'gn. mugarritik hurbil eta Bidarra'ko dermioan dugu Arpe'ko Saindue deitzen den zoko bat. Hemen bada koba edo arpe bat, eta barna hortan, zoko ilun batean agertzen da harri hartan Saindu baten itxura bezalako, dena harria eta dena bustia, ur txirrixta beti dariola mendiaren barnetik heldu dena eta arpea den guzia bustitzen duena.

Erraten dutenez, ur horrek sendatzen omen du zingirio, inguruko mine, ekzema delako gaitza hartu duen za-

tia. Zenbaitzuk sineste haundia dute Arpe'ko Sainduaren mirekulluetan eta haunitz joaten dira mendi zoko hortara. Arritzekoa da arpe hortan zer gauzak uzten dituzten. Badira kandelak, arrosarioak eta bertze bitxikeri gehiago ere. Baita ere eltxitu bat, nahi duenak sosa eman. Interesgarria Arpe'ko Saindua...

M. IZETA

Zumarraga

BUSCA TA ISUSI'TAR JOXE MARI

Neguan bagoaz aurrera ta elurra mendi puntan agertzen zan egunean, Zumarraga'n Santa Lutzi feria. Aurten gaiñera, amairu asteartea.

Gabonilla'k 10 eta 11'n, ordea, erriko seme dan Joxe Mari Busca ta Isusi omendu zuan Zumarraga'ko erriak, «ERRIKO SEME KUTTUN» izendatuz.

Gutziz ezaguna danez, jende asko urbildu zan egun oietan bere inguruan. Sukaldaritzari buruz itzaldi bikaiñak eman ziran bezperan eta igandez, Meza Nagusi eder baten ondoren, Erriko Udaletxeko Batzar lekuan, urrezko domina ta agiriak ematea. Barrenbarrendik irten zitzaizkion itz eder eta

maitasunezko batzuekin eskertu zuan guztia Joxe Mari Busca Isusi'k.

Zorionak, Joxe Mari ta urte askotan olaxe!

SANTA LUTZI FERIA

Illak amairu, Santa Lutzi feri ospetsua. Abere ugari ta erostun gutxi. Guztira, 1.000 bat buru. Saldu zan abererik merkeena 30.000 peztakoa izan ta garestiena, berriz, 400.000 peztakoa.

Makinaria aldetik, urtetik urtera ugaltzen doan gauza da. Mota guztietako makinaria ikusi genduan. Abertan ere bai, auntzak, ardiak, akerrak, astoak, beorak, zaldiak, mandoak, moxalak, txakur-kume ta katakumeak ere bai; basurdeak ere baziran.

Kapoi, ollar, sagar ta barazki ugari; esku-langitzaren erakusketa ere antolaturik zegoan Udaletxeko arkupetan.

Eguraldi aldetik, ateri ta orrelako egun baterako giro ona. Bezperan euri asko egin zualako, lokatza asko aurkitzen zan.

Saltzera etorritako jende asko ta erostun gutxi, orixe izan da aurtengo Santa Lutzi feriak Zumarraga'n eman duan guztia.

PAGOETA'K



Zumarraga'ko Santa Luzi Feria, Euskal-Erri'ko zaldi azokarik garrantzitsuen

Lesaka

JAKINTZA TA KIROL ALDEKO ASTEA LESAKA'N

KASERNA

Urtero bezela, aurten ere ospatu da aste osoa, kirol eta jakintza gaietara eske-ña. Autengo saio ontan, exposizio edo erakusketak, musika edo eres-aldiak, itzaldiak ta kirol ekintzak izan ditugu. Ekintza guzi oietan alegindu diranak, erritarrekin batera, inguruko erritakoak izan ditugu.

Peri edo abere-azokak, asko kezkatzen ditu gure erritarrak; ta zer esanik ez dago, gure emparantza zarrean ze-nolako giro berezia zegoen egun artan.

Itzaldietan janari eta kirol sendakin-tza gaiak aztertu zituzten batez ere; gai oietaz Yon Castillo sukaldaria ta Etxarren sendalaria jatorki mintzatu ziran.

Nekazaritzaz ta abereetaz ere mintzaldiak izan ziran, Iruña'ko IRIDA elkartetik etorritako jakintsuak agertu zituzten xeetasun ugari; bide batez, baita ere agertu zituzten diru laguntzak nola eskuratu, ta kooperatiba edo el-karte bereziak nola eratu. Gure neka-zarientzat ain bearrezko diran jakinga-

rri oiek guziak, gure erritar Tomas Rubio de Villanueva'ri esker antolatu al izan ziran.

Pelota jokoetan, Retegi III'garrena, Oyartzabal, Maiz l'goa ta Errandonea tartean ziralako, pelota-zale asko inguratu ziran jokaldiak ikustera; bañan, pelotari «zarrak» izan ziran, gozame-na ta irriparra ikusle guziengan artean sortu arazi zutenak; orrela, pelotari gazteak sortu zuten asper-giroa, beste giro alai batean biurtuz.

Korrika-jokaldiak, taldeeka antolatuak izan ziran; emakumeen sallah alde batetik, aurrak bestetik, eta zarrak eta gazteak ere bakoitza beren mallan. Korrikalariak, erritarrak gañera, baziran Bidasoa araneakoak, Baztandarrak, Iruñarrak eta gipuzkoarrak ere.

Dantzaldiak ere izan genitun; alde batetik erriko dantzariak, eta baita ere Igantzi, Bera ta Etxalar'koak.


Mus jokoan eta berdin foto edo argazki sayoetan ere ekinaldiak izan ge-

nitun; eta baita ere txistu jotzalle onena aukeratzea.

Coro edo abesbatzen erakusketak ere entzungarriak izan ziran; ta zer esanik ez, Erri-Etxe'ko arkupean eratu zan «ajoarriero» edo bakallu jateak, arrera oso ona izan zuala, anaikor giro eder batean.

Antziñako nekazaritza ta sukaldaritzan erabili oi ziran tresnaen erakusketak ere oso ikusgarriak izan ziran; an ikusi al izan genitun, ukullu ta ganbaretan baztertu ta zokoratutako antziñeko tresna zarrak. Batez ere gaurko gazteak egon ziran ikusi ta ikusi begiak erne zabaldurik, beren jakin-nai-gosea ase eziñik; kale ta baserrietako zaarrei galderak eta galderak egiñez.

Gure esker-ona agertu bearrean gaude, batez ere Erri-agintariei, «Beti Gazte», «Basurde» ta «Eguzki» elkar-teen zuzendariei, antolaketa oiek guziak, ez bait dira gertatzen, aurrez lan ugari ta sakonak egiten ez bait dira.



GUDA BUKATU-TA ZER EGIN?

E. OZKIN

Guda bukatu zanean zer egin genezaken bakoitzak? Burua makurtu? Epel-epel agertu? Millaka «kaiolan» sartuak irauin zuten, eta ondorengo urteetan bakoitzak daki bere berri...

Nik era on bat izan nun, eta Asturias aldetik artu ontzi bat, andik lau egunetara agertu giñan, ekaitzpean, Prantzi'ko ondartzatza batean.

Berealan, ango txendarmeak arrapatu ta sartu espe-txean, pizti gaizto batzuk ba'giña bezela.

Odolak irakitan genduzkan, prantxesek zer-nolako arrera egin ziguten ikustean. Onela esaten nion nik gure kapitanari:

—Emen barruan baiñon, naiago det an guda-borrokan egon!

Eta ortan, txendarme euskaldun bat azaldu zan, eta an gelditu zan gurekin euskeraz mintzatu. Itxaropen onak eman zizkigun onek, eta ongi portatzen ba'giña berealan aterako giñala.

Egun batzuk igaro ondoren, giltzapetik atera ginduzen, eta bultzian sartu au esanez:

—Ale! Nai duana, Endai'ra! Besteak, Bartzelona'ra.

Ura entzutean, borrokan asi giñan txendarmeekin, eta berriro guziok barrura. Urrengoan, berriro bultzira, eta bidean giñoazela, jo gendun ALARMA!, eta trena edo bultzia bertan gelditu zan. Ordun, guziok iges, leyoetatik beera geren buruak boteaz eta korrika zelayan barrena.

Txendarmeak zer egin? Naiz ta buruko kasku ayek berekin eduki, eta tramankulu ta guzi, ala ere ez ziguten tirorik bota.

Urrengo eguneko izparringiak irakurri egin bear ziran! Esan zituzten ikaragarriak txendarmeen aurka: ez zegoala eskubiderik, iñor gogoz kontra berriro gudara bialtzeko! Guda ura ez zala beste laterriaren aurka, anaiaren artekoa zala baizik...

Dana dala, arrezkeroz utzi ginduzten pakean; eta gosez ez iltzeko, lanera jo bear; bañan, nun lan egin? Ez nai zuten kanpotarrari lanik eman. Bai, toki batean, bai; eta ara!, Landes aldera, piñuak botatzera. Nere sasoi eder arekin, 22 urterekin, lanerako gogo bizia nun, eta antxen egon giñan Espaiña'ko guda bukatu arte.


Bukatu zanean, zer egin? Etxera joan? Bai zera! Amak idazten zidan ara ez joateko, zenbat eta urrutiago obeki.

Azkenik, artu ontzi ziztrin bat. Sei tonelakoa! Bayona'tik atera ta Venezuela arteraño.

Ogei ta amairu egun igaro genitun, baiña ala ere, eldu giñan, eta bizirik!, Jaunari esker. Bitarteko goseak, bustialdiak, bildurrak eta abar joan ziran...

Geroztik, an bizitu giñan, lan da lan, zerbait aurreratzan. OGEI URTE ondoren, berriro Euskalerrri'ra! Bien bitartean, ezkondu; baita aita ta amaren eriotzak ere, semea Amerike'tan, aiengandik urrun. Goian begoz!

Eta orain urfeak bizkarrean!



KIROLAK

BAKOITZAK BERE PILOTAK?

Zalantzarik gabe gauza asko dira gure euskal-joku ospetsu ontan konponketa eskatzen dutenak. Beste kirol edo jokuetan egin dira konponketa oiek; pelota jokuan, ez.

Lengo illeetan «atxikia»'z eta partiduetan galtzen den denboraz mintzatu giñen. Zorionez, Euskal-Pelotako Federazioak gure jokua gaitz ortatik garbitzeko asmotan sendo daude.

Gaur pillota beraz itzegin nai nuke; pillotaz. Pillotariak, jo ta jo, eskutik ormara eta ormatik eskura erabiltzen duten gauza txiki borobil ortaz.

Pillota bera ere, naiko problema, naiko arazo bai da gure pillota-jokuan!

Pillotaren lendabiziko arazoa, garestia izatea da. Ongi dakigunez, goma, aria eta larrua dira pillota baten gayak, eta gay oiek eskuz batzen dira pillota bat osatzeko. Ta, jakiña; gaur. esku-lana gauza garestia da. Eskuz egiten ziren len tenisko pillota, futboleko baloia, eta beste kiroletako borobilki denak,

gomaz eta larruz. Gaur, kimikaz egiten dira denak, eta makinez egiten dituzte. Eta lengo ayek bezain onak dira; ayek bezain onak ez, obeak!

Bigarren arazoa, pillota denak berdiñan ez izatea da. Era geyegiko pillota erabiltzen dira gure plazetan. Pixuak batzuk, ariñak besteak; biziak auk, motelak beste oiek; gogorak —arria bezalakoak— ayek, goxoak eta legunak beste ayek... Ori ez da kixazko gauza. Gurea bezalako kirol edo joku batek pulamentu geyago bear du!

Askotan, frontoira ateratzen dituzten pilloten botea ikustea eta otsa entzutea naikoa izaten da egun artan nork irabazi bear duen jakiteko.

Aurtengo udan, indar aundiko besoa eta iztar ariñan dituen palista bizkaitar batek esaten zidan:

—Neuri, neuk gura dodan pelota, ematen ba'deuste, palazko pelotari gustijei irabaziko neuskioe.

—Baita nik ere, erantzun nion; nik ere Il'gn. Retegi berari irabaziko nioke, eskuz-esku, nik nai dudan

pelota, trapu utsezko pelota bat, ematen ba'didate.


Baiña ori ez da pulamentua! Ori ez da pelotan jokatzea! Ori baiño begirune geyago merezi du gure jokuak!

Gaur ez diteke esan: «orrelako pelotariak alako pelotariari irabazi dio». «Orrelako pelotariak eta onelako pelota onek —onelako pelota onek bereziki— irabazi diote» esan bear da. «Alako pelotari ark, alako pelota eman ba'lie, errez irabaziko bai zion pelotari oneri».

Beste kiroletan orixe bera gertatzen zen len. Amaika aldiz ikusi ditugu futboleko «entrenadoreak» zelaira baloi bat bota eta bestea bota. Arazo bera zeukatzen tenisean, eta «golf»ean, eta borobilki bat bear duten kirol guztietan. Gaur, kirol bakoitzeko borobilkiak berdiñan dira denak: bote berekoak, pixu batekoak, gogortasun eta bizitasun berekoak.

Nola lortu izan dute ori? Kimikaren bidez, gaur ez bait da kimikak egin ez dezakean mirarik!

ERASO



Ez al da argazki polita? Bai orixe! Pelota-jokuarena baiño geiago dirudi «ballet» edo dantza txukun baten argazkia. Ez ordea. Pelota-joku baten argazkia da. Bilbo'ko frontoian aterata. Pelotariak Iturri eta Arribillaga l'a dira. Iturri'k jo-berria zuen pelota argazki au atera ziotenean.

Joa zuen pelota! Baiña nolako indarrarekin joa! Zazpigarren lerroan dago, eta, oraindik pelota jotzeko artu zuen posturatik zutitzeko denborarik gabe, okerturik dagoen bitartean, jo zuen pelotak egin du aurreko ormatik joan-etorria, eta baita Arribillaga pasatu ere. Al duen bezala dabil au pelota jasotzeko, baiña, naiz egoera txarrean ari, itzuli zuen onek, atzetik aurrera, eta beetik gora, pelota zail ori.

Iturri izen dugu aurten, Elgezabal'ekin, txapeldun. Arribillaga, Salbadro'ekin, bigarren. Baiña Arribillaga'k berak nai bezalako pelota otarrean aurkitu ba'zuen, nor izango ote zen aurten txapeldun? Bearrezkoa dugula frontoietan pelota BAT; beti BERDIÑA!



INGERU IRIGARAY IL ZAIGU

INGERU IRIGARAY, napar jatorra beti, Euskararen alorrean langille txalogarria, bai ta irakasle agurgarria ere, adiskide ona, pakezko gizona.

Itzterakoan ere berekin zeraman Euskarari, buruzko kezka. Illetaegunean, Aingeru'ren seme Joxe Anjel'ek erran zidan:

«Il baiño ordu gutxi leenago eldu zen gurera PRINCIPE DE VIANA euskal aldizkaria, ta ikusteko eskatu zidan».

Bere jakitate sakonatik eman ziguna, batez ere gurendako zuen maitasun andia, ordain dezaiola Jinkoak.

GARDE'TAR M.

SUMARIO

1: URTEAK XIN, BIZIA XOAN... «Urtezar», fecha marcada y reflexiva. Y modas ajenas que apuñalan tradiciones propias.

2-3-4: EUSKAL-ERRI'KO LEYOA. Ventanal: acuerdos de Diputación; nuestro Javier por la frontera alemana, M. YOSUNE; mejora de los pueblos; pero ¿quién quiere matar al Papa?, etc.

5: ZARTZAROA ILLUN? Hay que rechazar esos falsos tópicos, porque son falsos. MEDIKU ZAARRA.

6: LANGILLE BATEN EMAZTE EGOKIA. Danuta Walesa, digna esposa del guerrero de la Paz. ASTEKARI. CAMPION, visión histórica del Euskara en Navarra.

7-8-9-10: BERTSOLARI cede su espacio en homenaje a Yon Oñatibia, «juglar de la cultura vasca». El poema es su vida entera, dedicada a su pueblo: Música, Dantza, Euskera (cultivo y difusión, aportando métodos nuevos, directos, a la enseñanza). Paz, guerra o exilio; universidad o parvulario; y siempre, sabiduría, bondad y sencillez; y su sonrisa. Yon amigo, jagur!

11: GAUZA BITXIAK. Curiosidades: los hay con bigote por el mundo; pero «cabezones» y «pasteleros», en nuestra tierra.

12: TXINGURRI EGIN ZEN PRINTZEA. Cuento: el Príncipe que se hizo hormiga. DON BIXENTE.

PERU TXIKI'REN ATERALDIK. Ocurrencias de Peru Txiki.

13-14: ERRIZ-ERRI. Por los pueblos: mugas de Baztán, IZETA; Semana cultural de Lesaca, KASERNA; feria de Santa Lucía y homenaje a Busca-Isusi, en Zumárraga, PAGOETA.

15: KIROLAK. Bakoitzak bere pilotak? Diferencia, preferencia e influencia de la pelota; habría que unificar el material. ERASO.

16: AINGERU IRIGARAY IL ZAIGU. El Académico guipuzcoano LABAYEN nos habla del Dr. Irigaray, el euskaltzale navarro, su compañero y amigo.

Ez gaitu batere arritu bai ordea nairagabetu gure adiskide maitearen eriotzak. Aspaldidanik eritasun zital batek joa zenbillen. Joan dan udaran azken aldiz ikusi gendularik ez zan mintza al izateko gauza. Ezagutu gindun eta oraindik ibiltzeko diña zan, baiñan zerbait adieraz nai eta ezin. Mingarri benetan. Irripar eta begitarte trixtez aski agertzen zigun buruko gaitz anker batek artua zegoala eta sendatzeko itxaropenarik gabe. Honela gerta da zoritxarrez! Azaroa'ren 28'n zendu da ta gorputz illa Iruñe'ra eramana. Bera'n jaio zan 1899 urtean. Eta ospetsu izan zuan D. Permin Irigaray «Larreko»-ren bidetatik jarraituz, bai medikuntzan eta orobat euskaltasunean, Aingeru'k izen aundia irabazi zuan sendalari, idazle ta euskalari bezala. «Iruñe», «Apat-Etxabarne» eta beste zenbait izengoiti erabil zituan. Erri xeharen izkuntza arruntaren maitale purrutakua zan «Poesias Populares Vascas», Ipuiak eta ainbat aldizkarietan: «Egan», «Yakintza», «Gure Herria», PRINCIPE DE VIANA», «Euzkadi», «La Voz de Navarra» abar eta abar dira lekuko. «Prosistas Vascos en lengua Vasca», «Geografía de la Lengua Vasca» besteak beste zerrenda luzea betetzen dute.

Lan oiek guztiengatik Euskaltzaindiaren kide osoa zan eta eztabaidetan beti erdi bidetik joan nai izaten zuena. Zentzu aundiko gizona. «Diario de Navarra»-ko euskal orria bere gain arturik zeukan.

Gaztetandik eta mediku ikasle zala, Barzelona'n ango euskaldunen artean euskaltasuna zabaltzen leia zan, askoren maisu izanik Justo Garate jakinzale neurri gabearen adiskide aundi zan eta elkarrekin Prantzia eta Alemania'n ikasiak dira.

Biek Julio de Urkijo'ren mirasle ta jarraitzalle RIEV aldizkari goitarrean laguntza eman zioten.

Gure Aingeru Irigaray maitagarria 1936'ko gerrate ondoren Donostia'ra bizi izatera eldu zan eta emen ezik, Ondarribia'n ere medikuntzan jardun zan. Rosa Imaz goierriko jatorriko etxeko alabarekin ezkondu eta, ala-



Aingeru Irigaray, euskaltzale naparra, Euskaltzaindiko euskaltzaina, Donostia'n il zaiguna

bearrez, gazterik alargundua lausemealaba zituzten, Jainkoari esker osasuntsu bizi diranak.

Beroei eta Aingeru zanaren anai Luis Mari ta Jeronimo'ri gure dolumiña ager nai diet, eta atsekabeen gure laguntza ta eskeni otoiñ ta oroimeñez ez ditugula aztuko.

A.M.L.

